
EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.RI ATXIKITAKO HONDARRIBIA, ORIO ETA GETARIKO KIROL-PORTUETAN ZAINZA- ETA SEGURTASUN-ZERBITZUA XEDE DUEN ZERBITZUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATURAKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA, IRAUPENA ETA NORAINOKOA

Agiri honek Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri atxikitako Hondarribia, Orio eta Getariko kirol-portuen lokal guztietan segurtasuna ahalik eta modurik eraginkorrean bermatzeko, zaintzaren eta segurtasunaren zerbitzuak kontratatu eta eskaintzeko eska daitezkeen baldintza teknikoak definitzea du helburu.

Kontratu honen hasierako epea 2 URTEKOA izango da eta kontratu honen Klausula Administratibo Partikularren Agirian ezarritako terminoetan luzatu ahal izango da. Epea 2015eko martxoaren 1etik aurrera hasiko da zenbatzen.

Zerbitzua eskaintzeko izendatutako langileek bete behar dituzten funtzioak Euskadiko Kirol Portua, S.A.ren zuzendaritzak zehaztutakoak edo, nolahi ere, zerbitzuaren izaerari atxikitakoak izango dira.

Zerbitzuak agiri honetan xedatutako baldintzekin eta administrazio-baldintza berezien agirian zehaztutakoekin bat gauzatuko dira. Izan ere, horiek arautuko dute kontratazio hau. Enpresa esleipendunak garatu behar dituen segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak halako babes-funtzioetarako, bai gauzatzeari berari eragiten dion eremuan, baita langileen lan-alderdiei buruzkoan ere indarreko legeria aplikagarriari erreparatuz burutuko dira.

2.- ENPRESA KONTRATUGILEAK ESKURATUTAKO BITARTEKOAK ETA DOKUMENTAZIOA.

Kontratua hasi aurretik eta amaitu eta gero, material, altzari eta ekipo teknikoaren inbentario bat egingo da. Zerbitzuak ondo funtzionatzeko eta laneko segurtasuna eta osasuna betetzeko, enpresa esleipendunak material gehigarria behar dela uste badu, edo lokalak egokitu behar direla uste badu, enpresa kontratugilearen baimena lortu beharko du. Horrela bada, enpresa esleipendunak bere kontura jarriko edo egingo du eta portu-instalazioetan geratuko da behin kontratua amaitu eta gero. Euskadiko Kirol Portua, S.A.ko arduradun teknikoa eta bere laguntzaileak une oro enpresa esleipendunaren bulegoetan sartu ahal izango dira, hala baleude.

Era berean, kontratua hasi aurretik, enpresa esleipendunari Hondarribia, Orio eta Getariko portuen planoak eta funtzionamenduari buruzko araudiak nahiz gidalerroak emango zaizkio: portuetako larrialdi-plana, ibilgailuak sartzeko kontrola, aparkatzeko eta amarratzeko baimenak, udal-ordenantzak eta portu-barrutiei eragiten dizkieten beste araudi eta argibide batzuk, instalazioetako datuak, portu-jardueraren baldintzak, jarduera nautikoaren baldintzak, etab.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

3.- ZAINZA-ZERBITZUAREN ETA EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A. ERAKUNDEAREN ARTEKO HARREMANAK.

Enpresa esleipendunak lanen koordinazioaz arduratzeko arduradun bat izendatuko du eta enpresa esleipendunari ordezkatzeko dio enpresa kontratugilearen aurrean. Pertsona horrek ezingo du berez zaintza-zerbitzua egiten duen zaindari bat izan. Pertsonak zerbitzua eskaintzeari ez dio kostu osagarrikerik eragingo.

Segurtasun pribatuaren talde guztia ordezkariaren mende egongo da. Gainera, zuzenean eta eskatzen zaion bakoitzean enpresa kontratugilearen teknikari arduradunari berri emango dio.

Enpresa esleipendunaren arduradunaren eta enpresa kontratugilearen arduradunaren artean bilerak egingo dira, gutxienez hilean behin, sortutako arazoak landu eta aztertzeko. Bilera eta bisita guztietan adostutakoa idatziz jaso galdituko da eta akta idatziko da. Hori bertaratutakoek onartu eta sinatu beharko dute.

Horrez gain, lanen abiada onerako komunikazio iraunkor irekia egongo da eta edozein alde beharrezkoa izanez gero, programatutako bileren artean beharrezko harremanak izango dira.

4.- KONTRATATUTAKO ZERBITZUA HASI AURREKO LANAK

Lehiaketa esleitu eta zerbitzua antolatzen denean nahiz enpresa kontratugileak horren arduradun teknikoa izendatzen duenean, enpresa esleipendunak hurrengo jarduerak garatuko ditu:

Portuko instalazioak zehatz-mehatz aztertzea, langileek eta arduradunak kirol-portuetako instalazioak eta beren funtzionamendua berariaz ezagutzen dituztela ziurtatzeko. Enpresa esleipendunak horri buruzko txostena prestatuko du eta kontratua sinatzen den unetik 15 egunen buruan enpresa kontratugilearen arduradunari entregatuko dio. Portuetako instalazioetan zerbitzua eskainiko duten pertsona guztien eskura egongo da.

Enpresa esleipendunaren eskura jarritako bulegoaren eta bitarteko teknikoaren inbentarioa egitea. Kontratua sinatzen den unetik 15 egunetan gauzatuko da.

Bitarteko teknikoek (kamerek, grabagailuak, sarrera-kontrolak, monitoreak eta abarrek) behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea. Dokumentu bat entregatuko da eta enpresa esleipendunaren arduradunak sinatu beharko du, ekipoek modu egokian funtzionatzen dutela egiaztatzeko. Kontratua sinatzen den unetik 15 egunetan gauzatuko da.

Enpresa kontratugilearen arduradunarekin bilera egitea, zereginak betetzeko orduan, proposatutako plangintzan eta metodologian jarraitu behar diren irizpideak finkatzeko Zerbitzua eskaintzen hasten denean burutuko da.

Barneko lan-plana eta kalitate-kontrolari buruzko plana egitea; hain zuzen ere, hori da enpresa esleipendunak erabiliko duena zerbitzuaren funtzionamendu zuzena ziurtatzeko. Kontratua sinatzen den unetik hilabeteetan gauzatuko da.

5.- KONTRATUA GAUZATZEKO KALKULATU DIREN ZERBITZU-ORDUAK.

5.1.- Beharrezko gutxieneko hornidura

Zerbitzua behar bezala eskaintzeko, enpresa kontratistak hurrengoak izan beharko ditu:

Hondarribiko kirol-portua

Armarik gabeko segurtasun-zaindaria urtean 3.828 orduz.

Orioko kirol-portua

Armarik gabeko segurtasun-zaindaria urtean 4.144 orduz.

Getariko kirol-kaia

Armarik gabeko segurtasun-zaindaria urtean 3.828 orduz.

Armarik gabeko zaindariaren ordu guztiak urtean: 11.800 ordu urtean.

5.2. Zerbitzua emateko baldintzak

Kontratutako zerbitzua astelehenetik igandera bitartean, jaiegunetan barne, eskainiko da, ondoren zehaztutako zerbitzu-denboraldien arabera. Ordutegia enpresa kontratugileak eta enpresa kontratistak kontratua legezatu baino lehen zehaztuko dute, enpresa kontratistak bere eskaintzan aurkeztutako proposamenean oinarrituta.

Xede horretarako, honako zerbitzu-denboraldiak daude:

Behe-denboraldia: apirilaren 15etik abuztuaren 31ra.

Behe-denboraldia: irailaren 1etik apirilaren 14ra.

Kontratutako zerbitzua eskaintzeko ordutegia gaueko ordu-tartean (22:00etatik 6:00etara) kokatuko da. Behe-denboraldian ordutegia eguneko ordu-tarte batzuetara (6:00etatik 22:00etara) moldatuko da.

Abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta urtarrilaren 6an zerbitzua 24 orduz eskainiko da.

Behe-denboraldian gutxienez egunero 12 orduko zerbitzua eskaini beharko da Hondarribian eta Getarian eta 14koa Orion. Goi-denboraldian egunero gutxienez 7 orduko zerbitzua eskainiko da portu guztietan.

3. atalean deskribatu den bezala, enpresa esleipendunak arduradun bat izan beharko du eta ez da berez zaintza lanak giten dituen segurtasun-zaindaria izango.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Enpresak enpresa kontratugileari zerbitzura bideratutako langileen eta izan daitezkeen ordezkoen espedientea aurkeztuko dio. Ezinbesteko baldintza da prestakuntza-ikastaro egokiak jaso dituztela dokumentuz egiaztatzea. Segurtasun-zaindariak zerbitzua egiten ari diren bitartean dokumentu-egiaztatpena eraman beharko dute.

Kontratua gauzatzen ari den bitartean, kontratuaren xede diren zerbitzuak egiteko, enpresa esleipendunak giza baliabide eta bitarteko material nahikoak bere kargura zehaztu eta mantendu beharko ditu, nahiz eta aurrekontuetan sartuak ez izan. Enpresa kontratugileak ez du ordainketa osagarriarik egingo.

Enpresa eskaintzaileek langileak, ordutegia, kategoria, funtzioak eta baldintza ekonomiko aplikagarriak kontuan hartuta aurkeztuko dute eskaintza. Era berean, lan-hitzarmen aplikagarriaren kopia aurkeztuko dute.

Segurtasun-langileek arau batzuk bete beharko dituzte, zerbitzuari irudi korporatibo egokia ematen zaiola eta zerbitzua eraginkortasunez gauzatzen dela ziurtatzeko. Hauek dira jarraibideak:

- Txukuntasuna, garbi eta behar den bezala uniformatua egotea.
- Portuko jarduerarekin lan-harremana duten pertsonen tratua egokia ematea, baita zerbitzua eskaintzen den Hondarribia, Orio eta Getariko kirol-portuetako erabiltzaileei zein jendeari, oro har ere.
- Itxura egokia zaintza-lanpostuan, utzikeria ekidin behar da.
- Zehaztutako arauak betetzeko orduan, zehaztasuna.
- Zerbitzuan hasi eta hori uzteko orduan puntualtasuna.
- Funtzioak garatzen diren instalazioei, barrutiei eta lan-zentroeiei buruzko edozein informazio agertzeko erabateko debekua; gauza bera enpresa kontratugileak garatzen duen jarduerari buruz.
- Zaintzaren zereginak eskaintzen diren guneak eta postuak txukun eta garbi mantentzea.
- Zaindariak ezingo dute lanpostua utzi, arrazoi justifikatuaren kasuan izan ezik; gainera, hori alde aurretik eta nahikoa aurrerapenez jakinaraziko diete laguntza teknikoaren arduradunei. Enpresa esleipendunak hutsik dauden lanpostuak beste zaindari batzuekin bete beharko ditu eta ezaugarri nahiz lan-maila berdinak izango dituzte.
- Oro har, erakunde kontratugilearen irudia kalte dezaketen langileen jarduerak ekiditea.
- Sarrerarako kontrol-sistema eta zaintza-sistema (ordenagailua, segurtasun-kamerak, grabaketak, etab.) behar bezala erabiltzeko, enpresa esleipendunak kontratu honen xede diren jardueren ekin baino lehen zaintza-langileak berariaz prestatzeko konpromisoa hartzen du.
- Uniformea derrigorrean erabili behar da. Indarreko araudia betetz, enpresa kontratugileak uniformearen xehetasunak eta logoak zehaztuko ditu. Enpresa esleipendunaren kargura izango da portuko instalazioetan zerbitzua eskaintzen duten zaintza-langileen jantziak garbitzea.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- Enpresa esleipendunak Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri ohiz zerbitzuak Hondarribia, Orio eta Getariko kirol-portuetan eskaintzen duten pertsonen datuak jakinaraziko dizkio eta edozein aldaketaren berri eman ere bai.
- *EKPk eskatuz gero, enpresa esleipendunak honakoen kopiak entregatuko ditu: TCak, zerbitzua eskaintzen duten langileen nominak, aseguru-polizak, datuak babesteari buruzko legea betetzen duela adierazten duena, lan-arriskuen prebentzioa, beste edozein eske, epai edo ikuskaritza, kontratua gauzatzearekin zerikusia bada, eta EKPk erreklamatu ostean, kontratu honekin zerikusia duen beste edozein dokumentazio.*
- Enpresa kontratugileak enpresa esleipendunari eskatu ahal dio bere ustez jarrera edo portaera egokia ez du(t)en zaindaria(k) ordezkatzeko; hori horrela bada, errekerimendua egiten denetik gehienez ere hamar eguneko epean egin beharko da ordezkapena.
Enpresa esleipendunak hautatutako pertsonak ordezkatzeko, Euskadiko Kirol Portua, S.A.ko teknikariak berriaz onartu beharko du.

6.- BITARTEKO TEKNIKOAK

Funtzioak garatzeko, enpresa esleipendunak portu bakoitzean gutxienez ondorengo bitarteko teknikoak izango ditu:

6.1.- Enpresa kontratugileak eskuratutako bitartekoak

Itsas VHFa.
Faxa portuko bulegoan.
Portu-barrutira sartzeko kontrola.
Kontrol-postuari konektatutako zaintza-kamerak.
Sarrera-kontrolerako bitartekoekin eta egun instalatuak dauden kamerekin ekipo bateragarriak.

6.2.- Enpresa esleipendunak eskuratutako bitartekoak

Talkyak
Sakelako telefonoa.
Esku-argi eta txalekoak.
Txandetarako presentziaren kontrol-sistema.
Argazkiak atera eta inprimatzeko kamera digitala.

Ekipo guztiak, bai enpresa kontratugileak eskuratutakoak, baita enpresa esleipendunaren kontukoak ere, kontratua gauzatzen ari den bitartean, enpresa esleipendunak mantenduko ditu.

7.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK

Zaindarien hurrengo funtzioak bete beharko dituzte:

- Oro har, Hondarribia, Orio eta Getariko kirol-portuetako lokal eta instalazioen segurtasuna bermatzeko zaintzan aritzea.
- Portuko instalazioen eremuan dauden pertsonak eta jabetzak babestea, bai lehorrean, baita uretan ere.
- Portuko barrutian sartzen diren ibilgailuen aparkalekua kontrolatzea. Jarduera aparkalekuei buruzko araudia egiaztatuz garatuko da.
- Portuko barrutian zamalanetarako ordutegia betetzen dela kontrolatzea.
- Portuko barrutiaren uretan bainatzearen debekua eta nabigazioaren arauak errespetatzen direla kontrolatzea.
- Portuko barrutiaren barruan (ur-xafla eta ontzitegiak) ontzien egoera eta amarratzea egiaztatu eta kontrolatzea. Jarduera hau portuko barruti bakoitzean ur-xaflaren eta ontzitegien antolamendua egiaztatuz garatuko da. Hori enpresa kontratugileak eskuratuko du.
- Une zehatzetan izan dezaketen arriskuez pertsonak eta jabetzak babestea eta edozein gorabeherak edo larrialdik segurtasunari eragin behar badio, jardutea.
- Larrialdiko egoeratan (itsasoko ekaitzak eta kontrako klimatologia-egoerak barne) herri-zerbitzuekin lankidetzan aritzea.
- Ahal den neurrian, zaindu behar diren ondasunak edo zaintzen ari diren instalazioetako pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen dituzten liskar edo istiluen kontra jardutea.
- Zaindutako espazioen barruan itsas trafikoa, oinezkoena eta ibilgailuena antolatzea, segurtasun- eta larrialdi-beharrek hala eskatzen dutenean.
- 112 Larrialdietako Zerbitzuari eta Segurtasun Indar eta Gorputzetako arduradunei une zehatzean barrutien eta barruan dauden pertsonen segurtasuna zalantzan jar dezakeen edozein gorabehera berehala jakinaraztea.
- Segurtasun Indarrek eta Gorputzek emandako argibideak eta jarraibideak betetzea.
- Segurtasun Indar eta Gorputzen esku ustezko gaizkileak eta delituaren tresnak, gauzak eta frogak jartzea. Dena den, ezingo zaie galdeketarik egin.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- Portuko barrutiaren barruan arduradunek zehazten dituzten zaintza-txandak gauzatzea eta egiaztatzeke, beharrezkoak diren elementu teknikoak erabiliko dira.
- Zehaztutako Segurtasun eta Larrialdiko Planetan lankidetzan aritzea.
- Instalatutako kontrol- eta segurtasun-ekipoak egiaztatu eta erabiltzea.
- Agiri honen eremu desberdinetan segurtasun- eta babes-mailak areagotzeko beharrezkotzat jotzen diren hobekuntzak proposatzea.
- Eguneroko parteent bitartez portuko instalazioen, higiezin, urbanizazioaren eta portuko barrutiaren barruan dauden ontzien segurtasunari eragiten dion edozein gertaeraren berri ematea.
- Enpresa kontratugileak eskatzen dien beste edozein funtzio, kontratu honen xede nagusiarekin zerikusia badu.
- Gorabehera handiagoak izan ezean, eguneroko idatzizko segurtasun-txostena egin eta Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri jakinaraztea.
- Euskadiko Kirol Portua, S.A.ri emandako zereginekin zerikusia duen edozein gorabehera berehala jakinaraztea. Idatzizko gorabeheren txostena egitea.
- Hilero izendatutako arduradunaren eta enpresa kontratugilearen arduradunaren artean bilerak izatea. Horietan izandako gorabeheren berri emango da eta gorabehera guztiekin nahiz egindako txandekin hileko txostena entregatu ere bai.
- Jardueran aritzeko beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak eskatu eta lortzea.
- Hondarribia, Orio eta Getariko kirol-portuetako larrialdi-plana aztertzea, hobekuntzak proposatzeko.

Arestian zehaztu diren zaintza- eta segurtasun-funtzioekiko modu osagarrian, honako funtzioak eskainiko dira:

- Bai lurretik, bai itsasotik, Hondarribia, Orio eta Getariko portu-instalazioetara sartzean informazio- eta kontrol-zerbitzua eskaintzea. Jarduera enpresa kontratugileak emandako argibideekin bat garatuko da.
- Zerbitzuak dirauen bitartean (txandak barne) telefonoari eta itsasoko VHFari etengabe arreta eskaintzea.
- Portuko instalazioetan eta erabiltzeko orduan pertsona erabiltzaileei laguntzea, bai portuko zerbitzuen eraikinen barrualdean (kapitaintza, komunak eta dutxak,

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

etab.), baita kanpoko gune eta instalazioetan (erregai-hornitzailea, pantalanak, arrapaladak, aparkalekua, zabaldegiak, ontzitegia, etab.) ere.

- Enpresa kontratugileak zehaztutako irizpide eta jarraibideekin bat, bisitariak edo iragaite-nabigatzaileak hartzea, egiaztatzea eta orientatzea, zerbitzu-ordutegiaren barruan iristen badira.

Enpresa esleipendunak izendatutako arduraduna edozein unetan aurkitu ahal izango da eta Euskadiko Kirol Portua, S.A. ren edo, bidezkoa bada, Segurtasun Indar eta Gorputzen esanetara jarriko da, berehala edozein larrialdiko egoerari aurre egiteko.

Euskadiko Kirol Portua, S.A. enpresa esleipendunak izendatutako pertsonarekin zuzeneko solaskidea izango da, zerbitzuaren izaerari atxikiak egonik, egin beharreko zereginak zehazteko eta sor daitezkeen gorabeherak ebazteko.

Enpresa esleipendunak zerbitzua betetzeko beharrezkoak diren lizentziak, legeak edota baimenak jakingo ditu. Hori guztia bere erantzukizun eta kargupekoa izango da.

8.- KONTRATUA GAUZATZEN ARI DEN BITARTEAN EGIN BEHARREKO TXOSTENAK.

Enpresa esleipendunak txosten espezifiko desberdinak egin beharko ditu eta bi multzotan sailka daitezke:

A.- Aldizkako txostenak

- Eguneroko gorabeheren partea Euskadiko Kirol Portua, S.A.k eskuratuko duen eskemari jarraiki. Bertan eguneko 24 ordutan gertatutakoa islatuko da; nolana ere, izandako liskarrez gain, argien funtzionamendua, itsas balizak, hiri-altzarien egoera, zolataren egoera, portura sartzeko sistema, instalazioen egoera, ontzian egoera, etab. azalduko dira.
- Egunero ontzien amarratze eta sarrerei buruzko partea.
- Hileroko portuko zaintza-lanen jarraipen-txostena; hileko gorabehera esangarrienen laburpena egingo da eta argazki-erreportajea sartuko da. Halaber, barneko kalitate-plana bete al den aipatuko da.
- Enpresa kontratugilearen arduradunaren eta enpresa esleipendunaren arduradunaren artean egindako hileko bileren akta idaztea.

B.- Aldizkako ez diren txostenak.

Enpresa esleipendunaren arduradunak, gainera, hurrengo txostenak egingo ditu, beharrezkoak izanez gero:

- Zaindarien egiten duten lanaren aldaketa eta gorabeherari buruzko txostenak.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

- Portuko instalazioetan eta jarduera garatzean hautematen diren anomaliari buruzko txostenak, baita zaindarien egiten duten lanarekin zerikusia duten salaketa, erreklamazio edo kexei buruzkoak ere, horiek Euskadiko Kirol Portua, S.A.n jasotzen badira.
- Euskadiko Kirol Portua, S.A.k eskatu ostean, kirol-portuaren eremuan gertatu diren gorabehera zehatzei buruzko txosten bereziak. Txosten guztiak Hondarribia, Orio eta Getariko portu-bulegoetako artxiboan mantendu beharko dira, enpresa esleipendunaren eta enpresa kontratugilearen langileen esku.

Gasteizen, 2015eko abenduaren 5ean.

EUSKADIKO KIROL PORTUA, S.A.ko ZUZENDARIA

Eduarne Egaña Manterola